



### **EKARRI BEHARREKOAK**

- 1- Gelan edukitzeko: telazko poltsa bat izenarekin. Bertan muda bi, oinetakoak, galtzerdiak eta aldatzeko arropa. Amantala.
- 2- Umearen bi argazki (1 NAN tamainakoa, bestea handiagoa izan daiteke), atzean izena idatzita.
- 3- Pardelak eta zapi umelak bukatu ahala eskatuko zaizkizue.
- 4- Gelarako txupetea katearekin (plastikozkoa).
- 5- Ikastolan gosalduko duten haurrentzako, behar dutena etxetik ekarri beharko duzue: esnea, zerealak, biberioa...
- 6- Ikastolan ohean lo egingo duten haurrentzako izara ikastolak emango dizue. Izara hauei, telazko poltsa bat josi behar zaie.
- 7- Katiuskak.
- 8- Ikastolan erabiltzeko etxeko zapatilak, izendatuak.
- 9- Ura edateko kantinplora edo edalontzi bat.

### **GOMENDIO ETA ARAUAK**

- 1- Atzazalak moztu, garbitasunagatik eta haurren artean zauririk ez egiteko.
- 2- Haurren batek beharrizan edo ezaugarri bereziren bat izanez gero (gaixotasun, sendagai, alergia,..) ikasturtea hasi orduko jakinarazi.
- 3- Haurra, txandal edo jantzi erosoekin bidali. Ez da komeni botoi txiki, gerriko edo petoekin bidaltzea, umearen autonomia oztopatzen baitute.
- 4- Gantxorik ez jantzi umei, kendu eta ahora eramaten dituztelako.
- 5- Urtebetetze egunak ospatzeko bizkotxo bat ekarri. Gozokirik ez dugu onartuko.



6- Karroak aterpean edo barandailaren kontra (lerro batean) utzi behar dira.